

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2017ko IRAILAREN 22an IZANDA-KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Hezkuntza Arloko zinegotzia (Iñaki Gorroño Etxebarrieta)
- Gernikako AEK-ko ordezkaria (Iratxe Garmendia)
- Allende Salazar ikastetxeko ordezkaria (Txaro Agirre)
- San Fidel Ikastolako ordezkaria (Bego Zabaleta)
- Seber Altube Ikastola (Koldo Carbonell)
- Barrutia Ikastetxeko ordezkaria (Genma Astigarraga)
- Barrutialde Institutuko ordezkaria (Agate Aranaga)
- Gernika Institutua (Luis Ortuzar)
- Mertzede ikastetxea (Anabel Gerrikagoitia)
- Berritzegunea (Xabier Bilbao)
- HHI-EPA (Emilio Linaza)

Ezin etorria zuritu dute hurrengoek: Marisa Aldmizetxebarria Euskara Zinegotzia, Marije Zubillaga Udal Euskaltegiko zuzendaria, Bego Agirre (Inmigrazio teknikaria).

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 9,30

Amaiera ordua: 11,00.

Aldez aurretik Iñaki Gorroño Hezkuntza Zinegotziak proposatu egin du tartean beste gai bat sartzea: Neumologia kongresoa Gernika-Lumon izango dela eta antolakuntzatik eskoletara bideratutako proposamena (informazioa eskaintzeko batzarrera etorriko da Pedro España Galdakaoko ospitaleko Neumologia Arduraduna).



**1.- 2016-2017 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN
EMAITZAK AZTERTU ETA 2017-2018 IKASTURTERAKO
ESKAINITZA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak 2016-2017 ikasturteko taldeen balorazio orokorra egin du:

- Bi talde izan dira (60 orduko moduloa):
 - 13 ikasle A1 (hasiera) mailan. Bi baja izan dira eta batzuk asistentzia kaxkarra izan dute (ikusitxostena). Ikasle baten kasu berezia azaldu da, Mertzede ikastetxeko ikasle batena. Beste taldean baino balorazio hobea lortu da honetan.
 - Beste 11 ikasle B1 mailan (maila aurreratua). Hemen ere asistentzia kaxkarra batzuen, eta helburua ez da bete nahi beste, ez dagoelako goraiatzeko ikaslerik. Asistentzia faltaren arrazoiak ez dira beti borondate faltagatik, beste arazo familiar batzuk baizik.

Seber Altubeko ordezkariak azpimarratu du “mintzamenerako” saltoa egitea falta zaiela gehienei, lotsati azaltzen direlako edo... AEK-ko ordezkaria bat dator horrekin eta adierazi du helburua euskara erabiltzea dela, ahozkoari lehenetsua emanez, eta horri begira planteatzen direla hainbat baliabide.

Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:**

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 5. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- Izen-abizenak.
- Jatorria eta udalerrira noiz etorria.
- Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)
- Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.

2)- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

3).- Ikastaroa Gernika Institutuan garatuko da (2011ko ekainaren 17ko bilkuran erabakitakoari jarraituz), iazkoan bezala. Beraz, hurrengo urteetarako ikastaroen lekua honako hurrenkeraren arabera izango da:

- 2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua
- 2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.
- 2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: Mertzede Ikastetxea.
- 2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: San Fidel ikastolan.

Aprobetxatu egin da 5-a) puntua hona ekartzeko (gurasoei begirako euskalduntze ikastaroa), AEK-ren ardurapekoa delako hau ere.

AEKko ordezkariak eskaini du informazioa. Bi talde osatu dira: maial aurreratua (8 ikasle) eta oinarrizkoa ("0"tik, 12 ikasle). Bigarren honetan euretako bik A1 maila lortu dute eta gehienek hurrengo ikasturtean jarraitzeko gogoia adierazi dute.

Ikastaro eskaintza honetarako fitxak bidali dira zentroetara, gurasoentzako, eta izena emateko muga urriaren 5ean izango da.

Ikastaroaren ezaugarriak:

1).- Matrikula gisa 60 € kobratuko dira, matrikularen %25. HABEK taldeak homologa ditzan tramiteak burutuko dira eta defizita Udalak jarriko du.

2).- Zorrotz jokatu da azpimarratuz titulaziorako ikastaroa ez dela, hastapenerako baino.

3).- Epe muga matrikulatzeko: urriak 5 (plaza mugatuak izango dira).

4).- Ikastaroaren ordu kopurua 120 ordu, urritik ekainera. Ordutegia ikasleen gogoetara egokitze ahalegina egingo da.

1-BIS.- “NEUMOLOGIA KONGRESOA” GERNIKA-LUMON BURUTUKO DELA ETA BERE ANTOLAKUNTZATIK ESKOLETARA BIDERATUTAKO PROPOSAMENAREN BERRI EMATEA.-

Batzarrera etorri da Pedro España Galdakaoko ospitaleko Neumologia Arduraduna informazioa emateko. Aipatu kongresoa azaroaren 17an izango da Gernika-Lumon. Landuko diren gaiekin batera, pare bat aspektu sozial kaleratu nahi dituzte:

- Kutsadura eta tabakismoa eta horiek duten erlazioa arnasketa sistemaren patologiarekin.
- Osasun esparruko langileak eta pazienteak harremanetan jartzeko guneak landu.

Bi aspektu horiek lantzeko, erakusketa bat jarri nahi dute kaleko karpa batean, ikasleek eta herritarrek bisita dezaten. Beste alde batetik, eskoletan hitzaldiak emateko aukera izango litzateke, aipatu aspektu bien inguruan aritzeko. Hau guztia, 8-12 urte bitarteko ikasleei zuzenduko litzaike.

Gaineratu du hori guztia gauzatzeko Gernika-Lumoko Udalaren eta Urdaibaiko Patronatuaren laguntza jasoko dutela.

2.- “GU ERE BERTSOTAN” EGITASMOARI BURUZKO HAUSNARKETA ETA IKASTURTE BERRIRAKO PLANTEAMENDUA

Bizkaiko Bertsozale Elkartearen izenean etorri da batzarrera Ander Elortegi eta ikasturte berrirako planteamenduaren berri eman du. Aurreko ikasturtearen parekoa da: talde bat gehiago dago (21 talde), baina asteko ordu kopurua ordu erdi gutxiago izango da (aurrekoan 12,5 ziren eta oraingoan 12 izango dira).

Aipatu du martxan daudela klaseak eta egitasmoaren emaitza positiboak azpimarratu ditu; Bertso Eskolarako zubiak eraikitzea da helburu nagusia eta une honetan Bertso Eskola sendo badago, hurrengo urteetarako haziak erne dira eta etorkizun oparoa aurreikusten du.



Ikasturte amaierako jaialdia ekainaren 8an egitea proposatu du. San Fidelek adierazi du arazo duela egun horrekin. Beraz, Zentro bakoitzak hausnartuko eta urrian izango den hurrengo batzarrean finkatuko da eguna. Jaialdi horretarako bi saio desberdindu ziren 2017an eta uste du asmatu zutela erabaki horrekin. Gainera, modu horretara leku gehiago dagoenez, azken ilaretako aukietan gurasoak esertzeko gonbita luzatu daiteke.

3.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: AURREKO IKASTURTERAKO FINKATURIKO IRIZPIDEAK MANTENTZEN DIREN ERABAKI

Batzordeko idazkariak azaldu du atal honetako diru laguntzak banatzeko irizpideak ebatzi zituela Udal Eskola Kontseiluak 2016ko irailaren 20an izandako batzarrean. 2016-2017 ikasturterako ebatzi hori hauxe izan zen:

“2015-2016 ikasturtean erabilitako irizpideari eutsi 2016-2017 ikasturtean ere, hau da, zentro guztientzat gutxienekoa (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea”.

Erabakia:

Eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza ematearren, 2016-2017 ikasturtean erabilitako irizpideari eutsi 2017-2018 ikasturtean ere, hau da, zentro guztientzat gutxienekoa (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea.

4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2017-2018 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIAREN EGOKIPENAK AZTERTZEA.

Batzordeko Idazkariak informazioa eskaini du deialdiarekin bidalitako araudia dela eta. Gogorarazi egin du diru laguntzak banatzeko irizpideak mantentzen direla, kopurua barru (18.000 euro). Beraz, araudiaren bosgarren klausulako baremoak ere mantenduko dira.



Bestalde, deialdia egiteko bidezko ebazpena hartuko den arren, zentroetan araudi horren arabera eskaera eta agiriak prestatzen hasi ahal direla jakinarazi zaie.

Beraz, **hauxe erabaki da:**

1).- Diru kopuru orokorra 18.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren arau berezia honela geratuko da:

a).- 800 €, gutxienekoa, zentro bakoitzari (800x7 = 5.600 €).

b).- 8.000 € ikasle kopuruaren arabera banatzeko.

c).- Gainerakoa (4.400 €) araudiari jarraiki egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa.

3).- Zentro bakoitzeko gutxieneko aurrekonturako 2.000 € finkatu eta gehieneko aurrekonturako 9.000 €.

5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.

Puntu honen barruan, honakoak aztertu dira:

a).- Gurasoei begirako euskalduntze ikastaroa. Lehenengo puntuan aztertu da.

b).- GAZTEZULOren “BEITU” argitalpen digitala (informazioa).- Batzordeko idazkariak azaldu du GAZTEZULOkoak ari direla hausnarketa egiten une honetan eta ikasturte berrirako zentroekin harremanetan jarriko direla. Argitu duenez, GAZTEZULO bi euskarri landuko ditu: bata, GAZTEZULO aldizkaria, batxilergoko ikasleei zuzendua eta, bestea, “BEITU!” plataforma digitala (honi buruzko agiriak banatu dira).

c).- HIK HASI aldizkariaren harpidetzarena komentatu.- Iragan ekainean martxan jarritako dinamikarekin HAZI HEZI aldizkarirako 48 harpidedun lortu direla adierazi du Batzordeko idazkariak. Kontuan hartuta matrikulatzen diren ikasle berrien kopurua (150 bat), arrakastatsua da heren batek harpidetza borondatez eskatzea.



Barrutia ikastetxeko zuzendariak adierazi du ahalegindu direla, baina inork ez duela izenik eman, agian une egokia ez zelako edo... Berriro saiatuko direla aipatu du.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Seber Altubeko ordezkariak galdetu egin du beste urte batzuetan eskoletan eskaintzen izan ziren hitzaldiak edo tailerrak berriro eskainiko diren (drogamenpekotasunaren ingurukoak eta...). Uste du nerabeei ondo datozkiela.

Batzordeko idazkariak erantzun dio Drogamenpekotasun arloko Zerbitzua zela horretaz arduratzen izan dena eta zerbitzu hori desagertu egin dela.

Gaika egiten den batzarrerako data jarri da: urriaren 11n, goizeko 9,30etik aurrera (deialdia egingo da).

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

Bittor Zarrabeitia Bengoa

